



Ihauteriak historian zehar

Horra ihauterien historia apur bat, euskal eta europar ihauterien hobeki ulertzen eta bizitzen laguntzeko xedez idatzia. Agian hemengo bestetan ongi sentituko zara eta itzultzeko gogoia izanen duzu, bakarrik edo zure familiarekin.

Ihauteriak gizadiaren historiaren parte dira, gure historiaren parte beraz.

*Iturria: *Histoire du Carnaval : entre folie et inversion du monde, défense contre la mort et joie populaire
Le carnaval - essais de mythologie populaire -Claude Gaignebet et Marie-Claude Florentin*

Jauzi egizu! Jauzi historian! Eromeneko jauzia!

Ihauteriek jatorri indoeuroparrak zituzten Zelten garaian:

Protohistoria K.a. 1350 urte. Urtaro ilunetik urtaro argira iragatea.

Kristo aitzineko II. mendetik aitzina, Babiloniak 5 eguneko bestak (Saces) eskaini zituen Anaitis jainko-saren omenez, udaberriaren hasieraren eta naturaren berritzearen ospatzeko.

Erromatarren "Luperkalia" eta Greziako "Dionisiako" bestak ihauterien aitzindari historikoak dira.

Erromatarrek Saturnaliak ospatzen zituzten Saturno jainkoaren omenez. Besta horien kariatara, rolak aldizkatzen ziren: esklaboak erregez janzten ziren eta gizonak emaztez.

Kontrasteen bestak dira ihauteriak: negua/uda; bizitza/heriotza; ura/sua; azantza/lasaitasuna; musika/isiltasuna.

Denborarekin eta besta herrikoi horien hobeki kontrolatzeko, elizak ihauteriak bere egutegian ezarri zituen, bereziki neguko solstizioa eta eguzki-argiaren itzultzea ospatzen zituzten jai paganoen neurrian atxikitzeko, eta haien menderatzeko.

Erdi Aroan, ihauteriak Elizaren gidaritzapean antolatzen ziren. Ergelen edo Inozenten Besta, Astoa-rena... maskarada bat zen, elizgizonek hartan aktiboki parte hartzen zutela. Gisa horretan, **zeremonia bitxiak, irringarriak eta lizunak egiten ziren.** Besta mota horiek XVI. mendea arte iraun zuten, hainbat kontzilioren debekua (batez ere Auxerrekoa, 578) izan arren. Mezetan diakonoak eta azpidiako-
noak ere biltzen zituzten... Apezpiku bat hautatzen zen, eta eliza batzuetan berdin eroen aita santua ere. Katedraletan eta kolegiatetan horrelako bestak egiten ziren eta, halaber, bi sexuetako monaste-
rioetan ere...

Jendeak bozkarioz ihardukitzen dio urtaroen hersturari eta dena San Ziprianoren bazkaritik hasten da.



Ihauteriak urte berriaren ataria ote dira?

Zergatik ihauteriak negu amaieran dira ospatzen eta ez uda erdian? (Ipar hemisferioaren kasuan, bistan da...)

Udaberria gisa honetan idazten zen latinez XIII. mendean: *primus tempus*, hots, lehen garaia da, erran nahi baita lehen urtaroa.

Erromatarren garaian, urte berria martxoaren 1ean hasten zen (Luperkalia).

Naturaren iratzartzea

Lurrak, *gizadiaren sabelak* mitologiak erran lezakeen bezala, bere baitan dituen landareak ernatzen ditu, urte osoan haz gaitzaten. Ez duzua ikusten eta sentitzen lurra mugitzen? Naturaren iratzartzea, elikaduraren itxaropena... Urte berria heldu da!

Dena planeta kontu dea?

Urteko garai honetan, planeten halako lerrokadura dela medio, urtaro ilunetik urtaro argira iragaten gara. Fenomeno horrek jendearen baitan zirrara eragiten du, baita herstura suspertzen ere.

Antsietatea... Zergatik urteko sasoi honetan?

Lehengo denboretan eta oraino ez hain aspaldi, ez zen hozkailurik, ezta izozkailurik ere. Aberatsenek gatza eta gizona erabiltzen zituzten jatekoaren kontserbatzeko.

Pentsa neguak behar baino gehiago irautearekin erreserbak agortzen zirela... horrek herioa zekarren. Erregistro zibilek erakusten dute jende gehiago hiltzen zirela urteko sasoi honetan. Iduri du gure zelulak oroit diren horretaz. Gorputza negu osoan borrokatzen da bizirik irauteko eta flakaturik hiltzen da negu amaieran, barazki eta fruituen beha egoteko indar eskasez.

Herstura?

Menturaz animaliek ez bezala, jendeak badaki hilen dela...

Batzuek erlijioetan atzematen dute geriza eta kontsolamendua, eta beste batzuek bestan: hil behar baitugu, besta egin dezagun! Bizia goza dezagun!

Eta hartza, zer ari da ihauterietan?

Gure arbasoak jada ohartu ziren hartza udaberria hurbiltzean iratzartzen zela, elurra urtu baino egun batzuk lehenago. Ondorioztatzen zuten hartzak zuela udaberria ekartzen, natura iratzarritik. Beraz, neguak sobera irauten bazuen, hartza iratzarri behar zen! Horregatik da anitz ihauteritan hartza iratzartzen!

Animaliak? Hartzen lagunak dira. Big Bang eta GURE arteko junta direla gogorarazten digute. Gisa batez haien besta da!

Zanpantzar: sarkina? ikazkina? astoen erregea?

Oilo ebaslea, buhameei erreferentzia egiten diena... maitatua ez dena, ongietorria ez dena, hala ere, Europan gaindi bere folklorea partekatzen zuena eta gaur egun gure euskal tradizioetan ditugunak.

*Ikus Nicole Lougaroten liburua... Gure erritoak eta dantzak gure bohemiarrei (Bohemiakoei) zor ba-



genizkie? Alabaina, bohemiarrek Europa osoan gaindi ibili ziren. Menturaz horrek esplikatzen ditu antzekotasun horiek oro!

Baina Zanpantzarrek politika gaira ere eramaten gaitu...

Gizendua da, burgesa (hirian bizi), halako gargantua, Dionisoa, emaztezalea, zernahi eros dezakeen aberatsa... Edo berdin iraultzailea, anarkista, ikazkina... Erakundeak, indarrean dagoen boterea, jauntxoak eta haien pribilegioak kritikatzeko dituen iraultzailea. Anarkista, ameslaria, poeta, gogoeta pizten duena (arrazoi guzi horiengatik)

Erre behar da. (Ikus urrunago: Sua)

Nork bere arrazoiak eta usteak bide ditu eta Zanpantzar duda izpirik gabe erretzen.

Bestaren sarkina da.

Sarkina negua ere izan daiteke, neguak sobera irauten duelakoan, onddoen hiltzeko behar bezain hotz izan ez delakoan, hurrei elurra ekarri ez dielakoan...

Ikazkina: Buhameak, atzerritarrak, gure baitan beldurra eragiten dutenak, eritasunak ekartzen dituztenak... eta... hotza gogoratzen du. Neguaren ahazteko eta lurperatzeko erretzen dugun negua.

Erromatarren garaian, urte sasoi honetan herriak bizi zuen erokeriak fantasia guziak haizu egiten ziotuen. Bizitza kolektiboaren zorrotasunaren mugak hausten ziren, eta gorrotoa, mespretxua eta zernahi pultsio adierazteko bidea irekitzen. Esklaboak nagusi bilakatzen ziren garaia zen... Erromatarren garaian, esklaboek beren arteko bat izendatzen zuten nagusi gisa zerbitzatzeko denbora mugatu baiten. Horrek hilabete bat iraun zezakeen, esklaboa hiltzen zuten arte.

lhauteriak iragan eta, dena lehengo bizitzara itzultzen zen, urte batez. Ez ote da hori bera gertatzen gaurko bestetatik landa?

Erdi Aroaren amaieran sarkina Elizaz trufatzen zen. Grabatu zahar batzuek "astoaren meza" irudikatzen dituzte.

Mitoak:

Gizonak emaztez janzten dira eta emazteak oso bakan gizez.

Greziar mitologiari erreferentzia egiten dion mito zahar baten arabera, jende batzuek bi sexuak zituzten, eta horrek jendeen arteko jeloskeria eta jainkoei jazartzea ekarri zituen. Zeusek ezin zuen hori gehiago jasan eta egun batez, zigor gisa, bitan moztu gintuen, nonbait han. Horrek erran nahi du izaki sexual hein batean maskulinoak garela, beste batzuk femeninoagoak. Greziar heroi asko bisexualak dira: bere Idilioetan, Teokritok Herkulesen etsipena kontatzen du, Hylas maitalea galdurik ninfek bahitu baitzuten, haren edertasunaz liluratuak.

Mito hori Teokritok erabiltzen du Niziasen kontsolatzeko maitea urundu baitzaio, gizon gazte batek noizbait emazteen maitasuna bilatzea naturala dela sinetsarazi nahian. Herkulesek bere Hylasen galtzea onartua izanez geroz, Niciasek gauza bera egin zezakeen bere maitearekin.



Egur puxka

Iragan urteko gaitzak leporatzen diogun guzia daraman enbor puska bat da eta behin errerik, erabaki berriekin ongi abiatzeko aukera ematen diguna (Ikus gorago "urtaro ilunetik argira iragatea"). Euskal Herriko ihauterietan komunzki, baitezpadakoa da enbor puskaren erretzea.

Sua (Behe Paleolitoan, duela 500.000 bat urte)

Ikurra: Purifikatzailea eta bereizlea (bizitza arruntaren eta ez puruaren heriotza, eta bizitza izpiritualera berpiztea). Ikur hau hain segur nekazaritza-praktika batzuetatik dator, lurra erretzen baitzuten emankorragoa izan zedin.

Erotikoa Eneidan, eta greko-erromatar mitologian, Cupido, arku eta gezi batekin irudikatzen dela.

Maska

Maskaturik atzeman den lehen jendea Goi Paleolito garaikoa da (K.a. 15.000 eta 10.000 urte artean), Ariègeko Trois Frères leizean. Ez dakigu garai hartan zer erran nahi zuen maskak, baina badakigu jada bazela.

Erromatarren garaian: Janok, bi aurpegi dituen jainkoak, aurpegi bat iraganera itzulia du, bestea etorkizunera. Pasaia jainkoa da, hasierarena eta amaierarena, hautuena, atena... ("urtaro ilunetik sa-soi argira pasatzea").

Numa Ponpilioren erregealdian (K.a. 753-673) urtarrila eta otsaila sartu ziren. Jano jainkoari eskaini hilabetea.

... Beste gauza anitz erran daiteke, hala nola galarrotsez, etab...

Iturriak:

- Histoire du Carnaval : entre folie et inversion du monde, défense contre la mort et joie populaire. *Le carnaval - essais de mythologie populaire* - Claude Gaignebet et Marie-Claude Florentin
- Ihauteriak ongi deskribatzen dituen obra: *La fête des fous*, Harvey Cox (analisis teologikoa)
- Wilder mann, Freger, irudi ederrez eta bakoitzari dagozkion lau lerroko azalpenak europar ihauterien antzekotasunaz
- *Bohémiens*, Nicole Lougarot, gaiaren barnatzeko. Galdera hau ekartzen du: ez ote dira gure erritoak eta dantzak European gandi ibili bohemiarrek ekarriak?
- 1972an, Claude Mettrak "Carnaval" izeneko irati emankizun bat eskaini zuen. Ihauterien historiaz zen, eta lau oren irauten zuen. Irakurgai eta historialari analisis anitzetan oinarritzen zen. Antzezlanek, kantuz, soinuz irudikatzen ziren ihauterietako besten formak, izan daitezen arkakioak ala modernoak. Urtaroen zikloa, eroen besta, ihauterietako animaliak, ihauteri garaiko jatekoa aipagai ziren. Munduaren eskualde urrunekoak ere solasgai ziren: Brasilekoak, Rion eta Bahian. Hizlariak ihauteriak analisiatzen zituzten, hala nola Claude Gaignebet antropologoak, Martine Grimbart historialariak, Herri Arte eta Tradizioko Museoko Jean-Dominique Lajoux-k, Roger Bastide Sorbonne unibertsitateko irakasleak eta keltiar zibilizazioan aditua den Jean Markale idazleak.

<https://www.franceculture.fr/emissions/les-nuits-de-france-culture/histoire-du-carnaval-entre-folie-et-inversion-du-monde-defense> - France Culture 01/02/2017 - 1972